

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Edorta Barandiaran Garcia
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko maiatzaren 23an, arratsaldeko seietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ezingo zela etorri jakinarazi zuen Maite Uribek.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas del día 23 de mayo de 2017, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia Maite Uribe

1.- ESKOLA AGENDA 21: 2016/2017 IKASTURTEKO PROPOSAMENAK.

Alkateak ongi etorria egin die bertaratutako guztiei, bereziki, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleei.

Hitza eman ondoren, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleen ordezkariak 2016/2017 ikasturte honetan Eskola Agenda 21aren barruan mugikortasunari buruz Udalbatzarrari egiten dioten proposamenak aurkeztu dizkiote Udalbatzarrari.

Proposamen horiek akta honen eranskin gisa doaz.

Aurkezpenaren ondoren, Alkateak jakinarazi du eskaerak dagozkion batzorde informatzaileetan aztertuko direla, eta hartutako erabakien eta jasotako eskaerei erantzunez egindako jardueren berri emango zaiela datorren ikasturte hasieran.

Hala ere, esan du, proposamen batzuk egiten ari dira eta horien berri ematea egoki ikusten duela. Horrela, ikasleei zuzenduz, honako hauen berri eman die:

2. mailakoek egindako eskaerei dagokienez, eskatzen duzue udaltzainek ahal duten guztian bizikletak erabiltzeko. Esan behar dut herrian dabilzanean normalean bizikletaz edo oinez ibiltzen direla. Kotxea erabiltzen dutenean herriatik kanpora edo elizateetara joan behar direlako izaten da. Kotxe aldaketari dagokionez, aztertzen ari garen gaia da, eta litekeena da laster aldaketa ikustea.

4. mailakoek garraio publikoa aipatu duzue. Esan behar dut garraio publikoa ere aztertzen ari garela. Inork ez du aipatu, baina, jakin ezazu, egunero 89 autobus pasatzen direla Eskoriatzatik. Eta hori asko da, antolatzea behar du. Egia esan, garraio publikoa Eskoriatzan antolatzeak zailtasunak ditu herri luze eta estua delako. Bizikletekin jarduera gehiago antolatzeari dagokienez, uste dut antolatzen direla ikastetxeekin eta guraso elkarteekin batera. Eta eskola arteko forutik ateratako ondorioei publizitatea emateari dagokionez, uste dut ideia oso interesgarria dela.

6. mailakook ortu publiko gehiago eskatzen dituzue. Esan behar dut gaur egun dauden guztiak ez direla erabiltzen, denak ez daude hartuta, eta eskatu ahala lagatzen dira. Bertako produktuak saltzen dituzten dendei dagokienez, uste dut baditudala arrazoiak errieta txiki bat egiteko, bertako produktuak kontsumitu behar dituzuen lehenengoak zuek zaretelako, eta pipak, gominolak eta abar jaten dituzue eta horiek ez dira bertako produktuak. Ondo dago besteei eskatzea, baina, norberak ere bere betebeharrak ditu. Hala ere, ideia oso interesgarria da, horren berri emango zaie herriko dendariei bertako produktuak saltzen diren dendak zeintzuk diren adieraz dezaten. Badago "mahai" bat osatua merkatariekin, eta ideiarene berri emango diegu, eta ez dut uste martxan jartzeko arazorik egongo denik.

DBH1ekoek eraikin berriei buruz egindako eskaerari dagokionez, esan behar dut Eskoriatzako Udalak ez duela asmorik epe laburrean eraikin berririk egiteko. Hala ere, badu pentsatuta hainbat jarduera parkeen inguruan, eta izan ere, aurreko astean parke berri bat inauguratu genuen Kuartuenan, eta parke hori egiteko erabilitako materialek ingurumena errespetatzen dute. Eraikin berriak egiteko berdeguneak okupatu gabe egun dauden eraikinak aprobetxatzeko eskariari dagokienez, gure eskuetan ez dagoen gaia da, sustatzaileen eskuetan dago.

Eta, azkenik, energia berriztagarriekin sortutako energia kontratatzeako DBHko 2. mailekoek egindako eskariari erantzunez, jakinarazi behar dizuet energiaren kontratazioa Aldundiaren kontratazio zentraletik egiten dela, baina, hala ere, zuen proposamenaren berri emango diegula.

A! eta ahaztu zait, bizikletentzat eta patineteentzat bideak egokitzea eskatzen duzue, eta zuetako batzuk abiadura azkarrean zabiltzate oinezkoak dabiltzan tokietan, eta nagusiek susto bat baino gehiago izan dute. Eta hori denon lana da, ez bakarrik Udalarena, ikasi behar dugu ezin dela edozein modutan ibili edozein lekutan. Ondo dago bizikletaren edo patinetearen erabilera bultzatzea, baina, oinezkoak ere errespetatu behar dira.

Alkateak bere txanda amaituta, eta besteei txanda emanda, Nestor Aranak gogorarazi du patineteak aparkatzeko gune bat jartzeko Udalak hartutako konpromisoa.

Josu Ezkurdiak uste du eginda dagoela, baina, esan du egiaztatuko duela, eta eginda ez badago agindua emango duela ahalik eta azkarren egiteko.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 18:20an. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- AGENDA ESCOLAR 21: PROPUESTAS DEL CURSO ESCOLAR 2016/2017.

El Alcalde da la bienvenida a todos los presentes, en especial a los alumnos/as de los centros escolares de Eskoriatza.

Concedida la palabra, representantes de los alumnos/as leen al Pleno la propuesta que en este curso escolar 2016/2017 hacen a la corporación en el marco del programa Agenda Escolar 21 y que versa sobre "EL CAMBIO CLIMATICO".

Dicha propuesta se une como Anexo a la presente acta.

Tras la presentación, el Alcalde hace saber que las solicitudes serán tratadas en las Comisión Informativas correspondientes, así como que al inicio del curso que viene se les dará traslado de los acuerdos adoptados y de las actuaciones materializadas en respuesta a las solicitudes cursadas.

No obstante, añade que algunas de las propuestas ya se están llevando a cabo y que considera oportuno dar cuenta de ello. Así, dirigiéndose a los alumnos, les informa sobre las siguientes cuestiones:

En relación a las solicitudes cursada por los de 2º curso, pedís que los municipales utilicen siempre que puedan la bicicleta. He de decir que cuando se desplazan por el pueblo se desplazan normalmente en bicicleta o a pié. Cuando utilizan el coche es porque se tienen que desplazar fuera del pueblo o a las antelglesias. En cuanto al cambio del vehículo, la verdad es que es una cuestión que estamos analizando y es posible que pronto veáis el cambio.

Los de 4º curso mencionaís el asunto del transporte público. He de decir que también estamos analizando el tema del transporte público. Nadie ha mencionado, pero, para que sepaís, al día pasan por Eskoriatza 89 autobuses.

Y eso es mucho, requiere una reorganización. La verdad es que en Eskoriatza la organización del transporte público tiene sus dificultades por ser un municipio largo pero estrecho. En cuanto a organizar más actividades con las bicicletas, creo que ya se organizan en colaboración con las escuelas y las asociaciones de padres. Y en cuanto a dar publicidad a las conclusiones que se saquen en el foro interescolar, considero que es una idea del todo interesante.

Los de 6º pedís más huertos públicos. He de decir que no se usan todos los que tenemos en la actualidad, no están completos y se ceden a medida que se piden. En cuanto a las tiendas que venden productos locales, creo que tengo motivos para echar una pequeña bronca, porque los primeros que tenéis que consumir productos locales sois vosotros, y la realidad es que vosotros coméis pipas, gominolas,.. que no son productos locales. Está bien pedir a otros, pero uno también tiene sus obligaciones. No obstante es una idea muy interesante, se dará traslado de ello a los comerciantes del pueblo para que indiquen los establecimientos en los que se venden productos locales. Hay una "mesa" creada y daremos traslado de la idea y no creo que haya problemas para ponerla en marcha.

En cuanto a los de DBH 1, y a la solicitud que hacéis en relación a las edificaciones nuevas, he de decir que el ayuntamiento de Eskoriatza no tiene intención de construir nuevos edificios a corto plazo. Sin embargo si tiene pensadas actuaciones en relación a los parques, y de hecho la semana pasada inauguramos uno nuevo en Kuartuena, y ese parque está contruido con materiales respetuosos con el medio ambiente. En cuanto a no ocupar zonas verdes para edificar nuevas construcciones y aprovechar los edificios existentes, es una cuestión que no está en nuestras manos, está en manos de los promotores.

Y por último, en respuesta a la solicitud que cursan los de 2º de DBH y consistente en que se contrate el suministro de energías renovables, he de informaros que la contratación del suministro de energía está centralizado en la central de contratación de la Diputación, pero no obstante daremos traslado de la propuesta.

Ah! y se me olvidaba, pedís que se habiliten vías para bicicletas y patinetes, y algunos de vosotros andais a velocidad por donde transitan peatones, y la gente mayor ha cogido más de un susto. Y es algo que es labor de todos, no sólo del ayuntamiento, tenemos que aprender que no se puede transitar de cualquier forma en cualquier sitio. Está bien potenciar el uso de la bici o del patinete, pero también hay que respetar a los que se desplazan andando.

Terminada su intervención y concedida la palabra, Nestor Arana recuerda el compromiso adquirido por el ayuntamiento de instalar una zona para aparcamiento de patinetes.

Jose Ezkurdia cree que ya está instalada pero dice que ya lo comprobará y en caso de que no lo esté dará las ordenes oportunos para que en el plazo más breve se instale.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:20 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

ERNASKINA/ ANEXO

Arratsalde on denoi:

Urtero egiten dugun bezala, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, Eskola Agenda 21 programa landu dugu aurten ere. Aukeratutako gaia KLIMA ALDAKETA izan denez, berau eragiten duten zenbait aspektu landu ditugu Eskoriatzan eta azterketa horretako ondorioak eta hobetzeko zenbait proposamen egitera gatoz.

Kaixo,

2. mailakoek Eskoriatzako udaleko langileek, lanean, Klima aldaketari eragiten dion kerik botatzen den aztertu genuen. Horretarako, herrian zehar gehien mugitzen diren langileei galdetu genien eta hona hemen ateratako datuak:

UDALTZAINAK

- ✘ Herri barruan bizikletan ibiltzen dira.

- ✘ 22 urte dituen kotxe bat daukate.

- ✘ Gasolioa erabiltzen du.

BRIGADAK

- ✘ 10 urte dituen “todo terreno” bat eta 18 urte dituen kamioitxo bat.
- ✘ Biek gasolioa erabiltzen dute.

Beraz, ondorio nagusia Eskoriatzako udaleko ibilgailuek Lurraren Beroketari eragiten diotela da. Egoera hobetzeko hauek dira gure proposamenak:

1. Udaltzainek ahal dutenean bizikletak erabil ditzatela.
2. Ibilgailuak aldatu behar dituztenean (brigadarentzako, udaltzaintzako) elektrikoak erostea.

Mila esker zuen arretagatik. 2. mailako ordezkariak

Arratsalde on guztioi:

4. mailako ikasleen ordezkariak gara.

4. mailakoek Eskoriatzarren mugikortasun ohiturak aztertu ditugu. Horretarako 15 minututan (autobusen maiztasuna) Intxaurtxuetatik zenbat pertsona sartu ziren Eskoriatzara eta zenbat irten zenbatu genuen. Ondorioztatu genuen, nagusiki, kotxean eta bakarrik mugitzen garela,

eta horrela beharrean, dauden autobusak erabiliko bagenu, negutegi efektuko askoz ere CO₂ gutxiago isuriko genuela.

Hau ikusita, hobetzeko zenbait eskaera ditugu:

- Herriko erdigunean garraio publikoaren erabilpena mugatzea, eta era berean herrian bizikletak eta patineteak erabiltzeko bide aproposak eta aparkalekuak egitea (plaza inguruan).
- Garraio publikoak erabiltzeko kanpainak egitea eta bide batez, Almen inguruan geltokia ipintzea.
- Bizikletaz edo oinez antolatzen diren irteerak sarriago antolatzea.
- Eskolen arteko foroan ateratako ondorioak etxeetan zabaltzea.

Gure eskaerak kontuan izango dituzuelakoan, eskerrik asko.

Kaixo denoi,

6. mailako ikasleok, Eskoriatzarrek elikagaiak erosterakoan duten eskaintza aztertu dugu. Haragia eta ogia, opilak etab. Eskoriatzakoak edo ingurukoak erosi ditzakegu. Arrandegietan Kantauriar itsasoko espezie asko daukagu, baita oso urrutiko beste batzuk ere eta barazki eta frutetan antzerako zerbait gertatzen da. Era berean, oso ortu gutxi dago gure inguruan, eta bertako produktu gehiago ez saltzearen arrazoia, ez direla ekoizten da. Beraz, hau ikusita, hona hemen gure proposamenak:

- Ortu publiko gehiago egotea, udaletxeak langabezian dauden pertsonen lana emanez eta bertan ekoizten diren produktuak herriko azokan saltzea.
- Bertako produktuak saltzen dituzten dendei, pegatina bat edo kartel bat banatzea, herritarrek konturatzeko urrutitik datozen produktuen garraioan CO2 asko isurtzen dela eta klima Aldaketan eragiten dutela.

Eskaera hauek kontuan hartuko duzuelakoan, aurrez mila esker. 6. mailako ikasleak.

Arratsalde on,

DBH 1. mailako ikasleok Eskoriatzan lurrari ematen zaion erabilpena aztertu dugu. Horretarako gure herriko 1954ko, 1983ko ortofotoak eta gaur egungo egoera aztertu dugu. Ondorioztatu dugu, azken urte hauetan lantegi, errepide eta kotxei eman zaiela lehentasuna eta honek klima aldaketarengan eragin zuzena duela. Hau ikusita, udalari proposamen hauek helarazi nahi dizkiogu:

- Eraikin berdeak egin ditzala (material naturalak erabiliz).
- Torrebason dagoen parkearen antzerako gehiago egin ditzala, hau da, material naturalak erabiliz.
- Eraikin berriak egiterakoan gune berderik ez okupatzea, jadanik eraikita dagoena aprobetxatu, birgaitu...

Eskerrik asko DBH 1. mailako ikasleak

Kaixo,

DBH 2. mailako ikasleak gara eta guri aztertzea tokatu zaigun gaia energia izan da. Zenbait udal eraikinek erabiltzen duten energia mota aztertu dugu, Kiroldegian, Museoan, Zaldibar antzokian, Udaletxean, liburutegian eta Kultur etxean. Ikusi ahal izan dugu, Eskoriatzan energia iturri berriztagarriak erabiltzeko ahalegina egiten dela, biomasa erabiltzen da, plakak ere bai, etorkizun batean geotermia ere erabil daiteke... Ikusi dugu argiztapenerako sare nagusitik datorkigun argindarra erabiltzen dela (%90a inguru iturri berriztaezinetatik datorrena).

Beraz, gaurkoan egin nahi dizuegun eskaera ondokoa da:

- Jatorri berriztagarria duen energia hornitzailea kontratatu dezazuela.

Eskerrik asko eta beste bat arte DBH 2. mailako ikasleak